

Genero- ikuspegia Ordiziako udaleko kudeaketan txertatzeko **gida praktikoa**



Ordiziako Udala
Gizarte Hezkuntza eta berdintasuna
GIZARTE ZERBITZUAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideak Derechos Humanos



Lankidetzeta eta Berdintasuna Cooperación e Igualdad



Murgibe sl





Argitaratzailea: Ordiziako Udalaren Bedintasun Saila

Aholkularitza teknikoa: MURGIBE

Diseinua eta maketazioa: Eukene Lekuona

Inpresioa: Kolore inprimategia

Edizioaren urtea: 2011ko Ekaina

Aleak: 70

aurkezpena

Ordiziako Udalak hamarkada luzea darama emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak sustatzen, eta zeregin horretako mugarri bat izan da Ordiziako Udalak 2009-2012 aldirako onartutako Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako I. Plana, eta horrek beraien arteko benetako berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera nagusiak jasotzen ditu, besteak beste, honako gida hau egitea.

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan da, duela 20 urtetik gora, herri-administrazioan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, baina eskarmentuak erakutsi digu epe luzerako estrategia dela, eta oraindik abian jarri, esperimentatu, hobetu eta berregituratzeko fasean gaudela.

Asko dira udal-eremuko arlo batean edo hainbatean genero-ikuspegia zeharka txertatzeko esperientzia pilotuak egin dituzten administrazioak, eta horrek honako gida honek hurrengo ataletan azaldu duen ezagutza komuna eskaintzen du.

Ekintza honekin, Ordiziako Udalak urrats bat gehiago egin du genero-berdintasunaren gaian, eta horrek tokiko politiken eraginkortasuna hobetzeaz gain, herritarren gobernu egokian ere lagun dezake.

Esku artean duzun gida praktikoa honek lanerako tresna erraz eta praktikoa izan nahi du; udaleko zure eguneroko lanean lagungarri gertatuko zaizun tresna eta genero-ikuspegia zer den ikasteko, barneratzeko eta aplikatzeko jarraibideak eskainiko dizkizuna.

Hiru ataletan egituratuta dago, alde batetik **berdintasunaren abezea**, bertan, erreferentzia-markoa, zeharkakotasuna edo genero-mainstreaming kontzeptuaren azalpena, eta genero-ikuspegia udal-kudeaketan txertatzeko jarraibide orokor batzuk jasotzen dira. Beste alde batetik, **genero-ikuspegia praktikan nola txertatu** atala aurkituko duzu. Horretan, Ordiziako Udaleko arloek garatzen dituzten 16 egitarau eta/edo jardueretan genero-ikuspegia nola txertatu eta ebaluatu azalduko zaizu. Eta azkenik, gaia sakontzeko kontsulta daitezkeen zenbait **esteka eta erreferentzia** jaso dira.

Berdintasunaren abezea

Zein da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politika publikoen eremuan kontuan hartu behar duzun erreferentzia-markoa?

- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Europako Estrategia 2010-2015.
- Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzko 3/2007 Lege Organikoa.
- 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. plana EAEn, IX. legealdirako arauak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Foru Plana.
- Ordiziako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plana, 2009-2012.

Ahaztu behar ez duzun kontzeptua genero-mainstreaminga edo zeharkakotasuna da. Baina, zer da hori?

- Ez dago zuzeneko itzulpenik. Genero-berdintasunerako politika espezifikoen helburuak politika orokorretan txertatzean datza.
- Esku-hartze publikoaren praktikako estrategia iraunkorra da, eta horrek bereizten du, esaterako, ekintza positibo edo plan batetik, azken horiek aldi baterako direlako soilik.
- Haren xedea, sexuagatiko edozein diskriminazio-mota errotik desagerrarazteaz gain, politika publikoen prozedurak eta eraginkortasuna hobetzea da.
- Kudeaketa publikoaren –udal-kudeaketaren, kasu honetan– irizpidetan, prozeduretan eta emaitzetan aldatetak eragitea dakar.
- Kontzeptu horren ardatza generoari dagokionez politika neutrorik ez dagoela onartzea da, eta, hortaz, herritar-talde eta pertsona-talde bateko gizonen eta emakumeen iguripen, baldintza, gizarte-egoera, egoera ekonomiko eta politiko desberdinak kontuan hartu behar direla.
- Desberdintasun horiek kontuan hartu behar dira udalerrian egiten den edozein politika publikoren diseinuan, plangintzan, burutzapenean eta ebaluazioan.

Genero-ikuspegia abian jartzeko 4 oinarriak...

- ➔ **PLANA:**
emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko, ezinbestekoa da plan bat edukitzea.
- ➔ **PERTSONAK:**
pertsonek behar dira, teknikariak eta profesionalak, plana sustatzeko.
- ➔ **AURREKONTUA:**
beharrezkoa da berdintasunerako baliabide eta aurrekontu espezifikoak erabilgarri edukitzea.
- ➔ **PARTE-HARTZEA:**
Udala osatzen duten eragile guztien eta herritarren aldekotasuna funtsezkoa da, emakumeen eta gizonen parte-hartzea bermatzeko (kanpo parte-hartzea). Baita ere udalean edo udalerako lan egiten duten guztien partaidetza (barne parte-hartzea).

4 0

Zer egin behar duzu genero-ikuspegia aplikatzeko?

15 gako

- 1** Agintari gorenaren eta/edo aginte postuen beren beregiko konpromisoa edukitzea genero-ikuspegia udal-kudeaketan txertatzetik sor litekeen lana arintzeko eta horretan laguntzeko.
- 2** Barne eta kanpo-komunikazio parekidea: agiri guztietan, kanpainetan, idazkietan, dekretuetan, argitalpenetan, txostenetan, webgunean, eta abarretan hizkuntzaren eta irudien erabilpen ez-sexista egitea. Gogoan izan aipatzen eta erakusten ez dena, ez dela existitzen.
- 3** Datuak sexuaren arabera bereiztea modu sistematikoan. Jarraibide hori datu-bilketan, datuen azterketan, plangintzan, burutzapenean eta ebaluazioan txertatzea. Bai eta Azterlanak, Diagnostikoak, Sektoreko Planak, Memoriak, Plan estrategikoak eta abar abian jartzean ere.
- 4** Genero-arloko trebakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea. Zure lan-eremuko proiektuetan parte hartzea eta ezagupenak zabaltzea.
- 5** Enplegu publikoko hautaketa-probetan genero-arloko edukia txertatzea. Genero-alorreko oinarriko ezagupenak edukitzeak ezinbesteko baldintza izan behar du Ordiziako Udaleko langile-zerrendari atxikitzen zaizkion pertsonentzat.
- 6** Programen fase guztietan (plangintzan, segimenduan eta ebaluazioan) emakumeen eta gizonen beharizanak, udalerrian dituzten rol desberdinak, eta ondasun eta baliabideetarako irisgarritasuna eta kontrola jasotzea. Herritarrak sexurik gabeko izate neutroa balira bezala ez tratatzea. Jarduera bat pertsoneri zuzendurikoa bada, generoari dagokio.
- 7** Udaleko edozein jardueratan, emakumeen egoerari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bilakaerari buruzko alde aurreko ezagupen zehatza edukitzea, txostenetan, azterketetan, estatistiketan, eta abarretan oinarrituta.
- 8** Edozein motatako lantaldeak sortzean (Batzordeak, Epaimahaiak, Lan-taldeak, Kontratazio-mahaiak...) emakumeen eta gizonen presentzia parekidea bermatzea.
- 9** Jarduera zehatzak proposatzean, gogoan izan behar da gizonak eta emakumeak beste pertsona batzuk zaindu beharra izan ohi dutela; beraz, familia eta jarduera horiek uztartzea ahalbidetu behar diegu (ordutegiak egokituz, diru-laguntzak emanez, zerbitzuak eskainiz...).

- 10** Aurrekontuak genero-ikuspedia kontuan hartuta egitea, pertsona onuradunengan izango duen eragina ebaluatuz, eta gastu publikoak zein diru-sarrerek sexuen arabera izango duten eragina aztertuz. Aurrekontu-partida bat berdintasun Planerako gordetzea.
- 11** Proiektuen, diru-laguntzen, laguntzen eta kaptazioen berri ematean emakumeengana eta gizonengana berdin iristen garen aztertzea. Komunikazio-plana haien ohituren, ordutegien, eremuen, espazioen arabera egokitu... eta genero-ikuspedia duen segimendu- eta ebaluazio-sistema bat eduki behar duzu: helburu argiak, adierazleak, metodologia, etab.
- 12** Gogoan izan emakume atzerritarrek, helduek, elbarrituek, eta abarrek duten askotariko bazterkeria.
- 13** Zure lan-eremuan sortzen diren dekretuetan, diru-laguntzen pleguetan eta administrazio-araudietan berdintasun-irizpideak txertatzea. Azpikontratatzten diren enpresek eta pertsonak berdintasunarekin duten konpromisoa balioestea.
- 14** Emakumeen ahalduntze sozio-politikoak sustatzea: herritarrek parte hartzeko sorturiko espazioetan aktiboki parte hartzea eta aitzindari izatera animatuz. Emakumeek hainbat arlotan (kulturan, politikan, ekonomian, kirolean, historian, eta abarren) egindako jarduerak ere ikusaraztea.
- 15** Genero-estereotipo eta rol tradizionalak apurtzea eta emakumeak eta gizonak euren generoari esleitutakoen bestelako egoera eta zereginetan erakusten ahaleginduz (esaterako, emakumeak kirola egiten, etxetik kanpo lan egiten, gizonak beste pertsona batzuk zaintzen eta etxeko lanak egiten).

15 gako

Zer saihestu behar duzu genero-ikuspegia aplikatzeko?

- 1** Emakumeentzat diskriminatzaileak izan daitezkeen hautaketa-irizpideak sartzea, hala nola indar fisikoa. Komunikazio sexista: emakumeak eta gizonak generoari atxikiriko rol tradizioaletan erakusten dituzten irudiak erabiltzea, gaztelaniaz maskulinoa termino generiko gisa erabiltzea, etab.
- 2** Genero-ikuspegia txertatzearen zeregina berdintasun-teknikariaren ardurapean uztea; izan ere, langile guztion ardura da udalerrri berdinkideagoa sustatzea.
- 3** Sexuaren araberako desberdintasunen hautemate hutsa, aurrerantzean jardun ahal izateko, arrazoiak eta ondorioak aztertu gabe.
- 4** Berdintasuna emakumeei soilik dagokien gaia dela pentsatzea. Jarduerak emakumeekin egiteak ez du berdintasun-ikuspegia bermatzen.
- 5** Berdintasuna sexuen arteko botere-borroka gisa ulertzea. Sexu batek bestearengan izan duen nagusitasuna norabidez aldatzea; hots, gizonak, tradizionalki emakumeak mendean hartu eta haiengan nagusitasuna eragin izan dutenak, mendeko egoera batera igarotzea.

zer
saihestu

Genero-ikuspegia praktikan txertatzen...

Zer programa eta jarduera ikuskatu dira?

Saila	Programa / jarduera
➔ Gizarte-zerbitzuak	Mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako trebakuntza-ikastaroa.
➔ Gazteria	Aisialdia dinamizatzeko eta aisialdirako heziketarako, gazteriarri zuzenduriko programaren kontratazioa.
➔ Kirola	Udaleko kirol sailean genero-ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.
➔ Kontuhartzaitetza	Udaleko aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.
➔ Hirigintza	Hiri Antolamendurako Plan Nagusian genero-ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.
➔ Ingurumena	Udalerriko ikastegietako ikasleekin Zuhaitzaren Eguna ospatzea.
➔ Komunikazioa	Ordiziako Udaleko webgunean genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak.
➔ Udaltzaingoa	Ordizian genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko protokolorako jarraibideak.
➔ Turismoa	Delikatuzek egindako Ordiziako emakumeentzako elikadura osasungarriari buruzko ikerlana.
➔ Jaiak	Santa Ana 2010 herriko jaietako programa.
➔ Kultura	Kultura sailean genero ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.
➔ Drogazaletasuna	Ordiziako ikasleei zuzenduriko Irudi Biziak programa.
➔ Idazkaritza	Enpresak kontratatatzeko pleguetan genero ikuspegia txertatzeko irizpideak.
➔ Obrak eta zerbitzuak	Obrak eta zerbitzuak sailean genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak.
➔ Euskara	Haur-masaje ikastaroa, gurasoei zuzendua.
➔ Herritarren parte-hartzea eta boluntarioen sustapena	Zu zara giltza programa.

➔ Gizarte-zerbitzuak

Genero-ikuspegia gizarte-zerbitzuen sailean

Emakumeek oso zeregin garrantzitsua izan dute mendekotasuna duten pertsonak zaintzen, eta zaintza-lan horiek musu-truk egin izan dituzte. Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonen zuzenduriko jarduerak egotea mesedegarria da emakumeentzat, zuzenean edo zeharka.

Programa / jarduera>

Mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako trebakuntza-ikastaroa.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

Trebakuntza egin aurretik...

- ➔ Beste batzuen zaintzaile diren gizon eta emakumeengan zaintza-lanetan jarduteak nola eragiten duen jakin espezifikoki.
- ➔ Parte hartzen duten pertsona zaintzaileen beharrian eta interesak zein diren jakin, eta trebakuntza-saioa horietara moldatu.
- ➔ Trebakuntza saioan zaintzaileen presentziaren % bermatu.

Trebakuntza egiten den bitartean...

- ➔ Saioren kokapena eta ordutegiak kontuan hartu, pertsona zaintzaileek bertara joaterik izan dezaten.
- ➔ Trebakuntzaren aldiaren mendekotasuna duten pertsonen arreta jaso dezaten baliabideak ahalbidetu.
- ➔ Saioa ematen dutenek generoari buruzko ezagupenak dituztela bermatu.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Beste batzuen zaindari diren gizon eta emakumeengan zaintza-lanetan jarduteak nola eragiten duen jakiteko informazioa bildu da.
- ➔ Trebakuntza-saioaren edukia ikastaroan parte hartzen duten zaintzaileek adierazitako interes eta premien arabera egokitu da.
- ➔ Ikastaroan zaintzaile diharduten gizonen % dago.
- ➔ Saioren ordutegia eta tokia pertsonen aukeren arabera izan da.
- ➔ Saioak irauten duen bitartean mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko zerbitzua egon da.
- ➔ Saioa eman duen pertsonak badu generoari buruzko ezagupenik.

→ Gazteria

Genero-ikuspegia gazteria sailean

Gazteek genero-rol tradizionalak berregiten dituzte, eta genero-indarkeria naturalizatzen jarraitzen dute. Datuek erakusten dutenez, arazo horiek gazteengan ere gertatzen dira. Hezkuntza ez-arautua aparteko espazioa da genero-berdintasuneko baloreak lantzeko. Genero-ikuspegia gazteekin egindako lanean txertatzeak, egiten diren jardueretan hezkidetzak sustatzea eta genero-indarkeriaren prebentzioa egitea dakar batez ere.

Programa / jarduera>

Aisialdia dinamizatzeko eta aisialdirako heziketarako, gazteriarri zuzenduriko programaren kontratazioa.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

- Programaren helburuetako baloreen artean berdintasun-printzipioa sartu.
- Gazteen artean genero-berdintasuna sustatzen duten harremanak bultzatzea jaso.
- Profesional taldeko kideek genero-arloan duten trebakuntza espezifikoa balioetsi aisialdiko heziketa-zerbitzua eskainiko duen enpresa kontratatzean.
- Kontraturiko enpresak landuko duen proiektuak genero-ikuspegia txertatu behar du, eta hezkidetzak eta tratatu onak sustatuko dituzten jarduerak antolatu behar ditu.
- Begiraleen hizkera eta komunikatzeko erak ez direla sexistak bermatu.
- Jarduera guztietan emakumeek parte hartuko dutela bermatu.
- Mutilek eta neskek espazioez berdin gozatuko dutela bermatu.
- Urteko memorian, parte hartu duten nesken eta mutilen kopurua jaso, bai eta haien adina, zein jardueratan parte hartu duten eta zein ordutegitan.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- Genero-ikuspegia txertatu da programa kontratatzeko pleguetan.

→ Kirolak

Genero-ikuspegia kirol sailean

Oro har, emakumeek gizonek baino gutxiagotan parte hartzen dute kirol-ekintzetan. Kirol jardueran benetako parekidetasuna egon dadin oztopoak desagerrarazteko, genero-ikuspegia txertatu behar da kirola sustatzeko programen diseinuan eta kirol jardueren kudeaketan.

Puntu honetan, Ordiziako Udaleko kirol sailak egindako ahalegina azpimarratu behar da; izan ere, Generoa eta Kirolari buruzko ikerlana egin dute emakumeak kirolean parte hartzera bultzatzeko estrategia hobetzeko aurreurrats gisa.

Programa / jarduera>

Udaleko kirol sailean genero-ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.

Nola egin?

- Emakumeek kirola egin dezaten sustatu adin guztietan.
- Ordiziako kiroldegiko kirol-instalazioen erabilerari, kirol-ekitaldietako parte-hartzeari, eta abarri buruzko azterlan bereziak egin sexuaren arabera.
- Emakumeen kirola garatzen duten Ordiziako klubak, federazioak eta abar diru-laguntzen bidez lagundu.
- Ordiziako ikastegiekin orpoz orpo lan egin kirol jarduera sustatzeko, sexu bereizketarik gabe.
- Kiroldegiko webgunearen bidez Ordiziako eliteko emakume kirolariak berreskuratu eta ikusarazi.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- Bizitza osoan zehar emakumeen kirola sustatzeko egindako jarduerak.
- Sailak egiten dituen azterlanak sexuaren arabera bereizita daude.
- Emakumeen kirola sustatzen duten klubei diru-laguntzak eman zaizkie.
- Ordiziako ikastegietan nesken eta mutilen kirol-jarduera bultzatzeko ekintzak egin dira.
- Kiroldegiko webgunean emakume kirolariei buruzko berriak txertatu dira.

➔ Kontuhartzailletza

Genero-ikuspegia kontuhartzailletza sailean

Udalaren aurrekontuak oso tresna baliotsua izan behar du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko orduan. Garrantzitsua da gogoraraztea esleitzen den aurrekontuekin jarduerari ematen zaien lehentasuna edo garrantzia zehazten dutela. Ikuspegi hori aurrekontuen azterketan txertatzeak generoaren parekidetasunean eta aurrekontuen eraginkortasunean lagunduko luke. Kontua ez da aurrekontua handitzea, lehentasunak berraztertzea baizik.

Programa / jarduera>

Udaleko aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.

Nola egin?

- ➔ Berdintasunerako aurrekontu-partida ikusarazi, alde batetik arloari dagokion aurrekontu espezifikoak azpimarratuz eta, bestetik, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gainerako sailek egiten dituzten jarduerak nabarmenduz.
- ➔ Udaleko sail bakoitzeko aurrekontu-partida ikusarazi.
- ➔ Udalaren aurrekontu osoan, sail bakoitzak duen pisu proportzionala zein den zehaztu.
- ➔ Emakumeekin eta neskekin egindako jarduera espezifikoetara bideratutako gastuak erakutsi.
- ➔ Euren jardueretan genero-ikuspegia sustatzeko jarraibideak txertatzen dituzten erakundeei Udalak emandako laguntzen, diru-laguntzen eta abarren zenbatekoa jaso.
- ➔ Udalaren aurrekontuan generoak duen eragina balioesteko adierazle-zerrenda bat prestatu (programen onuradunak diren pertsonak eta sexuaren araberako jarduerak, etab.).
- ➔ Udalaren aurrekontuak egitean generoaren eragina neurtzeko adierazleak txertatu.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Genero-berdintasunerako aurrekontu espezifikoak islatzen da.
- ➔ Udaleko sailek berdintasuna sustatzera bideratutako jardueretan zenbat gastatzen duten zehazten da.
- ➔ Beharrezkoa denean, emakumeekin beren beregi egindako jardueretan erabiliko den dirua zehazten du aurrekontuak.
- ➔ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko laguntzen eta diru-laguntzen zenbatekoa islatzen da aurrekontuan.
- ➔ Udalaren aurrekontuak egitean generoaren eragina neurtzeko adierazleak txertatu dira.

➔ Hirigintza

Genero-ikuspegia hirigintza sailean

Generoaren sozializazioaren ondorioz, emakumeek eta gizonek bete dituzten funtzioak kontuan hartuta, batzuek eta besteek duten espazioaren erabilera eta pertzepzioa oso desberdinak dira. Esaterako, sarritan emakumeak gaizki argiztuak edota apainduak dauden tunel, pasabide, kale eta plazak saihesten dituzte eragiten dieten segurtasun faltagaitik. Beste alde batetik, hesi arkitektonikoek eragin handiagoa dute emakumeengan, eurak direlako bereziki mendeko pertsonak zaintzen dituztenak, eta eguneko erosketak egiten dituztenak. Ikuspegi berriarekin, emakumeen ahotsa entzun behar da, hirigintzarekin loturiko politikan euren esperientziak eta premiak txertatzeko. Horiek jasotzeak herritar guztien bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

Programa / jarduera>

Hiri Antolamendurako Plan Nagusian genero-ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.

Nola egin?

- ➔ Udalerrietako segurtasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna, zerbitzuak eta ordezkartza sinbolikoa genero-ikuspegitik hobetzeko moduak aztertu, emakumeen beharrianak jasoko dituzten diagnostikoen bidez.
- ➔ Oinezkoentzako espazioak sortu.
- ➔ Neurriak jaso herritarren –batez ere emakumeen– presentzia eta mugikortasuna ahalbidetzeko, udalerrri osoan eta eguneko nahiz gaueko edozein orduan.
- ➔ Kale eta parkeetako argiztapena eta ikusgarritasuna zaindu, emakumeen segurtasun-sentsazioan eragiten baitu.
- ➔ Ordizian diren leku ilunak hauteman eta desagerrarazten ahalegindu.
- ➔ Herriko lekuak eta hiri-altzariak egokitu, norberaren bizimodua, familia eta lana uztartzea ahalbide dezaten.
- ➔ Hiriko seinaleztapenean irudi estereotipatuak saihestu.
- ➔ Emakumeek udalerraren historian egin dituzten ekarpenak ikusarazi, sortzen diren kaleei, plazei edo monumentuei ibilbide pertsonalagatik, lanbideagatik edo arlo sozial nahiz kulturean egindako ekarpenengatik udalerraren garapenean lagundu zuten emakumeen izenak emanez. Emakumeek egin dituzten zereginak edo lanbideak ere azpimarra daitezke.
- ➔ Ordiziako Emakumeen Elkarteak eta Berdintasun Sailak Hiri-antolamendurako batzordean parte hartzea.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- Genero-ikuspegia aintzat hartuta, hirigintza alorrean emakumeek dituzten beharrianak jasotzeko diagnostikoa egin da.
- Emakumeek hautemandako hesi arkitektonikoak murriztu egin dira.
- Emakumeek hauteman dituzten toki ilunak murriztu dira.
- Oinezkoentzako espazioak sortu dira.
- Ez dago irudi estereotipatuak erakusten dituen seinalerik.
- Hiri-altzarietan uztartzea hobetzeko elementuak txertatu dira.
- Badira emakumeen izenak edo haiek egindako zereginak edo lanbideak aipatzen dituzten kaleak, monumentuak eta plazak.
- Berdintasun sailak eta emakumeen elkarteak badute ordezkartzarik hiri-antolamenduko batzordean.

Hirigintza

→ Ingurumena

Genero-ikuspegia ingurumen sailean

Ingurumen alorreko heziketak kutsadurarekin edo isurketekin, energia-aurrezkiarekin, uraren balioaren kontzientziarekin eta natura zaintzearekin zerikusia duten ohiko arazoak ez ezik ingurumenean eragiten duten bestelako faktore sozial, kultural eta ekonomikoak ere kontuan hartzea dakar. Genero-parekidetasuna aintzat hartuta ingurumena kudeatzeak gizonen eta emakumeen arteko harreman bidezko eta osagarriak ahalbidetzen ditu, eta baliabide naturalen kudeaketarako aniztasun biologiko eta kulturala hartzen du barnean.

Programa / jarduera>

Udalerriko ikastegietako ikasleekin Zuhaitzaren Eguna ospatzea.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

- Emakumeek ingurumenaren zaintzan duten zeregina ikasgelan landu.
- Baliabide naturalen zaintzan mutilek konpromisoa har dezaten sustatu.
- Baliabide naturalen kontrol eta erabileran emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak gelan landu.
- Gazte guztiek, jarduera guztietan berdinkidetasunez parte har dezaten kontrolatu.
- Zuhaitzak, landatu dituzten gazteen izenekin identifikatu, egin beharreko zainketa-lanen azalpen labur batekin.
- Emakumeek nekazaritzan tradizionalki bete izan duten eginkizuna ikusarazi.
- Ordiziako emakume nekazari bat ekarri zuhaitz bat nola landatzen den ikasleei erakusteko.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- Ingurumena zaintzeko zereginetarako erantzunkidetasuna landu da gelan.
- Gazteek berdinkidetasunez parte hartu duten jarduerak egin dira.
- Zuhaitzak landatu diren unean kontuz ibiltzeak duen garrantziari buruzko mezuak txertatu dira.
- Ordiziako emakume nekazari bat gonbidatu da neska-mutilei zuhaitz bat nola landatzen den erakusteko.

➔ Komunikazioa

Genero-ikuspegia komunikazioan

Genero-ikuspegia komunikazioan txertatzea oso tresna baliagarria izan daiteke generoko baloreak eta estereotipoak aldarazteko. Horretarako, garrantzitsua da berdintasun-alorreko jarduerak ikusaraztea eta hizkera eta irudi berdinkideak erabiltzea.

Programa / jarduera>

Ordiziako Udaleko webgunean genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak. Azpimarratzekoa da Udala egiten ari den ahalegina; izan ere, atal berezia sortu du berdintasun sailerako.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

- ➔ Gaztelaniaz egitean, hizkera barneratzailea erabili. Esaterako: *Saludo del Alcalde* atalean "bienvenidos y bienvenidas" erabili; *envío por email* atalean, "Nombre del destinatario o destinataria"; eta "personas usuarias" edo "población de Ordizia" bezalako berbak erabili, *servicios de la biblioteca* atalean.
 - ➔ Telefono interesgarriak /*Teléfonos de interés* ataletan, genero-indarkeriaren biktimei arreta egiteko telefonoak gehitu.
 - ➔ Webgunearen atarian, berdintasunarekin zerikusia duten data garrantzitsuak azpimarratu: Martxoaren 8a, Emakumeen nazioarteko eguna; azaroaren 25a, Emakumearen aurkako indarkeriaren borrokarako nazioarteko eguna; urriaren 15a, Emakume nekazariaren eguna; otsailaren 22a, Soldata-berdintasunaren eguna; maiatzaren 28a, Emakumeen osasunaren nazioarteko eguna, etab.
- Agiriak, berriak eta abar idaztean kontuan hartu beharreko jarraibideak.**
- ➔ Ez dira erabili behar sexu bakoitzaren jarduera tipikoak erakusten dituzten gizon eta emakumeen irudiak (hobe, emakumeak lanbide-eremuko jardueretan eta sektore maskulinizatueta, eta gizonak zaintza-lanetan edo bezeroei arreta egiten, esaterako).
 - ➔ Argazki kopuruari, argazkien neurriei eta argazkien kokapenari (azala, kontra-azala) dagokienez, ordezkaritza parekidea sustatu.
 - ➔ Berriak idaztean emakumeak gizonen mendeko gisa erakusten dituzten idazkerak saihestu behar dira: *La concejala de Bienestar social acompañó al Alcalde al acto*. Hobe horrela: *La concejala de Bienestar social y el Alcalde acudieron al acto*.
 - ➔ Emakumeak informazioaren protagonista eta iritzi-sortzaile bihurtu.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Webgunean hizkera eta irudien erabilera berdinkidea egiten da.
- ➔ Webgunean, berdintasunaren data adierazgarriak erakusten dira.
- ➔ Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta egiteko telefono zenbakiak jaso dira webgunean.
- ➔ Berriak idaztean, genero-estereotipoak apurtzen dituzten irudiak erabiltzen dira.
- ➔ Ordiziako emakumeen iritzia jasotzen duten artikuluen kopurua handitu egin da.

Komunikazioa

→ Udaltzaingoa

Genero-ikuspegia udaltzaingoaren baitan

Emakumeen aurkako indarkeria gure gizarteak duen arazo handienetakoa da, eta haien arreta hobetzea eta prebentzioan jardutea dira tartean dauden profesionalak jorratu behar dituzten eremuak. Udaltzainek eremu horretan egiten duten lana oso garrantzitsua da; izan ere, emakumeak arretaren zirkuitura sartzeko ateetak bat dira. Hori dela eta, funtsezkoa da gertaera horien kausak, adierazpenak eta ezaugarriak zein diren jakitea eta jarduteko protokolo bat edukitzea.

Programa / jarduera>

Ordizian genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko protokolorako jarraibideak.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

- Udaltzaingoaren, Udaleko Gizarte-zerbitzuen, osasun-zentroaren, ikastegien, Ertzaintzaren eta abarren arteko koordinazioa.
- Udaltzainei genero-indarkeriaren aurrean jarduteko trebakuntza eskaini.
- Eraso baten aurrean jarduteko, honakoa hartu behar da kontuan:**
- Erasotzailea tokian bertan bada, biktimarengandik bereizi behar da, biktimak komunikatzeko askatasun handiagoa izan dezan.
- Udaltzainek lasaitasuna eskaini behar dute, doinu lasaigarria erabili behar dute biktimari segurtasuna emateko.
- Biktima Ordiziako udaltzainen egoitzara joatera gonbidatuko dute, hartuko dituen erabakien gaineko gogoeta askatasun eta lasaitasun handiagoarekin egiterik izan dezan.
- Eman beharreko pausoak honako hauek izango dira: alde batetik, biktimari zer eskubide dituen eta zer baliabide erabil ditzakeen jakinaraziko zaio, eta bestetik, salaketa ipini. Azkenik, kasua Ertzaintzara eta Gizarte-zerbitzuetara bideratuko da.
- Kalte fisikoak baldin badaude, biktima Ordiziako osasun-zentrorra eramango da.
- Salaketa jartzeari buruz gertaeren tokian bertan ez hitz egitea gomendatzen da.
- Udaltzainek beti eduki behar dute argi biktima une horretan krisi eta presio egoeran dagoela, eta une horretan errazagoa gertatzen zaiola erabaki bat hartzea gertaeren lekutik urrunduta.

Biktimak udaltzaingoaren egoitzara joan nahi ez badu:

- ➔ Salaketa jartzea gomendatuko zaio.
- ➔ Tratu txarren biktima diren emakumeentzako arreta integraleko udal-programaren eta eskura dituen baliabideen berri emango zaio.
- ➔ Etxebizitza utzi nahi badu, beste etxe batera edo harrera-etxeraino lagundu behar zaio.
- ➔ Ordiziako udaltzaingoaren telefono-zenbakia emango zaio.
- ➔ Filiazio-datuak jasoko dira (biktimarenak, seme-alabenak, lekukoenak, etab.) aurrerago izan litezkeen jardueretarako.
- ➔ Gertatutako erasoari buruzko informazioa jasoko da genero-indarkeriako kasuetan inplikaturiko profesionaleri bidaltzeko.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Udaltzaingoaren barruan badira genero-indarkeriari buruzko trebakuntza jaso duten pertsonak.
- ➔ Gida honetako gomendioak praktikan jartzen dira indarkeria-kasuren bat gertatzean.
- ➔ Genero-indarkeriako kasuen berri emateko orria badago, eta tartean esku-hartzen duten profesionalekin konpartitzen da.

Udaltzaingoa

→ Turismoa

Genero-ikuspegia turismo sailean

Turismo sailean hainbat jarduera antolatzen dira herritarrentzat, inguruko kultur ondarea eta ondare turistikoa bultzatzeko. Genero-ikuspegia txertatzeko, Ordiziako eta Goierriko historian emakumeek utzitako arrastoaren eta haien presentziaren berri eman daiteke haien kultur ekarpena goraipatzeko; sarritan ahaztuta eta baztertuta geratzen baita.

Bizimodu osasungarriagoaren aldeko jarduerak ere antolatzen dira. Horren ildotik, genero-ikuspegiak emakumeek eta gizonen bizitzan zehar dituzten bizi-zikloen eta egoeren eragina kontuan hartzea dakar. Esaterako, emakumeen kasuan, kontuan hartu behar dira hilekoa, haurdunaldia eta menopausia.

Programa / jarduera>

Ordiziako emakumeentzat Delikatuzek egindako elikadura osasungarriari buruzko ikerlana. Delikatuz, bizi- eta elikadura-ohitura osasungarriak sustatzeko turismo sailaren programa da.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

- Ikerlana emakumeentzako elikadura osasungarrian zentratzen den arren, interesgarria litzateke gizonen buruzko informazioa ere jasotzea, aldeak ba ote dauden jakiteko eta konparaketa egin ahal izateko.
- Honakoa jakiteko galderak txertatu: zer erosten den (elikagaiak), non erosten den, nork erosten duen eta zergatik erabakitzen den batzuek edo besteek erostea. Datu horien berri edukitzeak erakutsiko digu Ordiziako familietan nork daukan elikagaien kontrola eta kudeaketa.
- Emakumeek eta gizonen egunean zehar zer jarduera egiten dituzten galdetu; horrela, gizonen eta emakumeen elikadurarekin zerikusia duten jardueretan zenbat denbora ematen duten jakiteko: nork prestatzen dituen jakiak eta zenbat denbora ematen duen horretan.
- Kontuan hartu beharreko beste gai bat Ordiziako gizonen eta emakumeen elikadura osasungarriari buruz dituzten ezagupenak dira.
- Emakumeentzako elikadura osasungarriarekin zerikusia duten Ordiziako esperientziak, ohiturak eta praktika historikoak jaso.
- Ikerlanean parte hartu duten pertsonen adina eta sexua jakin.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzekeo adierazleak

- Ikerlanean erabilitako tresnek txertatuta daukate genero-ikuspegia.
- Ordiziako emakumeen elikadura osasungarriko ohiturei buruzko informazioa badago.

➔ Jaiak

Genero-ikuspegia jaietan

Jaiak Ordiziako herritar guztientzako dira; beraz, onartu behar da gizonak eta emakumeak bertako parte garrantzitsu direla, eta batzuei zein besteei zuzenduriko jarduerak egin behar direla, parte-hartze aktiboa eta orekatua lortzeko.

Jaietan, arauak leundu egiten direlako, jende-pilaketagatik, alkohola eta bestelako drogak kontsumitzen direlako ahalbidetu egiten da emakumeak zaugarriagoak diren tokietan indarkeria gertatzea. Hori dela eta, beharrezkoa da herritarrak genero-indarkeriaren inguruan sentsibilizatzea egoera hauetan ere.

Programa / jarduera>

Santa Ana 2010 herriko jaietako programa.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

Programaren azalean ez da erakusten gizonak eta emakumeak jaietan barneratzen dituen irudirik. Arrazoiak:

- ➔ Oso maskulinizatuta dauden jaietako jarduerak erakusten dira: boxeo, zezenketak..
- ➔ Danborrada irudikatzeo gizon danbor-jolea erabili da, baina danborrada mistoa izanik, emakume danbor-jolea ere gehitu daiteke.
- ➔ Askoz ere gizon gehiago agertzen dira, emakume bat agertzen da erraldi batek irudikatuta.
- ➔ Gizonak aurpegiz agertzen dira, emakumea, aldiz, lepoz.

Beste alde batetik, genero-ikuspegia kontuan hartua izan den arloak azpimarratu ditugu:

- ➔ Alkatearen agurrean erabiltzen den hizkera barneratzailea da.
- ➔ Programaren barruan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua eta askotarikoa agertzen da.
- ➔ Berariaz aipatzen da eraso sexualen aurkako jarrera, bai ikusiz, bai edukietan ere.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeo adierazleak

- ➔ Jaietako programaren azalean genero-ikuspegia kontuan hartu da.
- ➔ Programazioan hizkera eta irudi barneratzaileak erabiltzen dira.
- ➔ Jaietan emakumea errespetatzeko eta erasorik ez egiteko aipamen berezia egiten da.

➔ Kultura

Genero-ikuspegia kultura sailean

Udaletako kultura sailetatik berdintasunaren baloreak sustatu daitezke antolatutako ekintzen bidez. Kultur jarduerak genero-ikuspegiarik gabe egitea oso kaltegarria da emakumeen eta gizonen arteko gizarte bidezkoagoa lortzeko bidean, eta genero-rol tradizionalak betikitzen ditu.

Programa / jarduera>

Kultura sailean genero-ikuspegia txertatzeko jarraibide orokorrak.

Nola egin?

- ➔ Eskaintzen diren kultur ekitaldietan uztarketa errazteko zerbitzuak (haurtzaindegia, ludoteka...) erabiltzeko aukera eskaini.
- ➔ Programaren berri emateko bideak gizon nahiz emakumeentzat irisgarriak izatea bermatu.
- ➔ Kultur ekitaldiak hainbat ordutan eskaintzeko aukera aztertu.
- ➔ Ekitaldietarako sarreren kostuaren gainean neurriak hartu, eta kasu batzuetan murriztu: ama bakarrik duten familiei, emakume alargunei, etab.
- ➔ Jardueretako parte-hartzearen segimendua egin sexuaren arabera, eta beharrezkoa denean neurriak hartu, emakumeak eta gizonak berdinkidetasunez parte har dezaten lortzeko.
- ➔ Ordiziako ikastegietara zuzenduriko jarduerak eskaini (filmak, antzezlanak, ikuskizunak...), honako ezaugarri hauekin:
 - Genero-estereotipoak apurtzen dituztenak, emakumeak gizonen mendeko gisa erakustea saihestuz (printzesa eta printze sorgindua).
 - Emakumeak eta gizonak rolak trukatzeko erakusten dituztenak, sozialki beste sexuari esleitzen zaizkion jarduerak egiten.
 - Neska mutilarekin ezkontzen da gisako istorio-amaierak alde batera utzi, eta bestelakoak erakusten dituztenak.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Programazioari buruzko informazioa emakumei eta gizoni iristen zaie.
- ➔ Ekitaldien ordutegiak herritar guztien, gizon nahiz emakumeen, beharrezkoak egokitzen dira.
- ➔ Egindako jardueren ebaluazioa genero-ikuspegitik egiten da.
- ➔ Ikastegiak parte hartzen dute programako jardueretan.
- ➔ Genero-estereotipoak apurtzeko aukerako jarduerak egiten dira.

➔ Drogazaletasuna

Genero-ikuspegia drogazaletasunarekin lotuta

Drogek ekartzen dituzten erronkei eta arazoei aurre egiteko genero-ikuspegia txertatzeak emakumeek eta gizonak drogekin dituzten harreman espezifikoak ulertzen eta haien antzekotasunak eta ezberdintasunak bereizten laguntzen du, eta batzuek eta besteek drogak kontsumitzeko dituzten motibazioak zein diren eta portaera horren ondorioak ulertzen laguntzen du.

Programa / jarduera>

Ordiziako ikasleei zuzenduriko Irudi Biziak programa.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

- ➔ Filmen bidez genero-desberdintasunak eta berezitasunak aztertu; hau da, drogak kontsumitzera bultzatzen duten faktore fisikoak, psikologikoak eta sozialak, erabilera-patroiak eta sexuaren araberako ondorio eta eraginak.
- ➔ Ikasleei drogak kontsumitzea ez dela gauza bera gizonentzat eta emakumeentzat eta sozialki ez dela berdin balioesten ulertzen lagunduko dieten jarduerak txertatu.
- ➔ Drogazaletasunaren problemen aurrean gizarteak ez du berdin erantzuten. Emakume askok, laguntza ez eskatzearen, ezkutatu egiten dute arazoa, zale gisa estigmatizatuko dituzten beldur, eta gizarte-bazterkeria, bikotekidearen, familiaren eta inguru hurbilaren arbuioa jasoko dutelako beldur.
- ➔ Emakumeen osasun sexualean eta ugalketan drogek duten eragina erakusten duen filmen bat erakutsi, bide batez, honako gaiak lantzea ahalbidetzeko: ugalkortasunean duen eragina; drogak eta haurdunaldia; amatasuna eta drogazaletasuna.
- ➔ Drogazaletasunak gizonari eta emakumei modu espezifikoan zer nolako arriskuak ekartzen dizkien landu gelan.
- ➔ Drogen kontsumoan emakumeen ikusezintasuna landu gelan.
- ➔ Drogen kontsumoaren eta genero-indarkeriaren arteko harremana landu gelan.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Irudi Biziak programan txertatzeko proposamena egin da.
- ➔ Irudi Biziak programak genero-ikuspegia txertatzen du lanean.
- ➔ Ordiziako Udaleko drogazaletasuneko sailak prebentziorako heziketa-programa dauka, eta genero-ikuspegia txertatuta du.

➔ Idazkaritza

Genero-ikuspegia idazkaritza sailean

Genero-ikuspegia idazkaritza sailean txertatzeak zeharkako gaitan berdintasun-irizpideak txertatzea dakar, esaterako, kontratazioan. Irizpide berri honek garrantzi kuantitatibo eta kualitatibo handia dauka eredugarria delako, eta erreferentzia eta eredu gisa balio duelako, transferitu ahal delako eta erantzungarria delako eta enpresa-sektorean eragin handia duelako.

Programa / jarduera>

Enpres kontratatzeke pleguetan genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak.

Nola egin?

- ➔ Honako hau duten enpresen kontratazioa ahalbidetu:
 - Kontraturikoen artean % emakume dituzte.
 - Kualifikaturiko postuetan % emakume dituzte.
 - Berdintasun Plana eginda edo egiteko konpromezua.
 - Norberaren bizitza, familia eta lana bateratzeko neurriak aplikatzen dituzte.
 - Berdintasunean trebatzeko ekintzak egiten dituzte.
 - Hizkera eta irudi barneratzaileak erabiltzen dituzte.
 - Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunean lankide direlako ziurtapena duten enpresak.
- ➔ Kontratazio-prozeduratik kanpo geratuko dira emakumeak eta gizonak baztertzeko praktikak erabiltzen dituzten enpresak eta pertsonak. Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako legeetako betekizunak ez betetzea.
 - Sexuagatiko erabaki diskriminatzaileak.
 - Laneko sexu-jazarpena.
 - Derrigorrezkoa den kasuetan Berdintasun Planik ez egitea.
 - Estatutueta eta helburuetan sexuaren arabeko irizpide diskriminatzaileak jasotzea.
- ➔ Agiri eta materialetatik emakumea diskriminatzen duten irudi guztiak kenduko dira, eta berdintasun-baloreak, rol-ugaritasuna eta erantzunkidetasuna sustatuko dira.
- ➔ Testu guztietan hizkuntza berdinkidetasunez erabiliko da.
- ➔ Trebakuntza-jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatuko da.
- ➔ Laneko arriskuen prebentziorako eta laneko osasunerako jardueretan genero-ikuspegia hartuko da kontuan, eta haien edukia sexu bakoitzaren ezaugarri berezien arabera izango da.
- ➔ Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren erabiltzaile eta onuradun izan diren pertsoneri, kontratua gauzatu duten langileei buruzko datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztu beharko ditu memorian, eta berdintasunaren inguruan hartu diren neurrien eta haien eraginaren berri ere emango du.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna balio erantsi gisa duen enpresa bat kontratatu da gutxienez.
- Argitaratzen diren eskaintzetan genero-ikuspegia duten kontratazio-irizpideak jasotzen dira.
- Berdintasun planak dituzten enpresak kontratatzeari eman zaio lehentasuna.
- Kontratazio-pleguetan baztertzeko irizpideak islatu dira.
- Aurkeztutako memorietao informazioa sexuaren arabera bereizita dago.

Idazkaritza

→ Obrak eta zerbitzuak

Genero-ikuspegia obrak eta zerbitzuak sailean

Langile talde mistoentzako azpiegitura egokirik ez edukitzeak eragotzi egiten du tradizionalki gizonenak izan diren jarduera-sektoreetara emakumeak sartzea. Genero-ikuspegia obrak eta zerbitzuak sailean txertatzen hasteko, beharrezkoa da ideia bat gainditzea, hots, emakumeak ez direla halako lanpostuetarako egokiak; eta emakumeak hurbilarazteko ahalegina egin behar da, eta espazioak egokitu.

Programa / jarduera>

Obrak eta zerbitzuak sailean genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak.

Nola egin?

- Gizarteak dituen (okerreko) uste hauek gainditu egin behar dira:
 - Emakumeek ez dute behar besteko gaitasun fisikorik.
 - Emakumeek ez dute gizonen besteko indar fisikoa.
 - Hainbat lanbide eta/edo lanpostu ez dira emakumeentzat egokiak.
 - Taldeetan emakumeak sartzeak gatazka eragiten du.
- Emakumeen kontratazioa sustatu behar da, errekrutatzean eta/edo azpi-ordezkatu dauden lanpostuen adjudikazioan ekintza positiboak eginez.
- Laneko espazioei dagozkien gomendioak:
 - Aldagelak, garbiketarako lokalak eta komunak bereizi egingo dira emakumeentzat eta gizonentzat, edo leku horiek modu bereizian erabili ahal izatea aurreikusiko da.
 - Emakumeentzat iraingarriak diren kartel, poster eta halakoak debekatu egin behar dira.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- Emakume langileentzat espazio egokiak prestatu dira.
- Brigadako langileen artean, emakume bat bada, gutxienez.
- Laneko lokaletan ez dago emakumea iraintzen duen irudirik.

➔ Euskara

Genero-ikuspegia euskara sailean

Euskara sailean euskara sustatzeko hainbat jarduera antolatzen dira, eta horrek aukera bat ematen du genero-ikuspegia txertatzeko eta berdintasunaren baloreak sustatzeko.

Programa / jarduera>

Haur-masaje ikastaroa, gurasoei zuzendua.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

Seme-alaben zaintza emakumeen ardura ia eskusiboa izan da historian zehar; baina egoera hori aldatzen ari da, eta gero eta aita gehiagok barneratzen du zaintzaile-rola.

- ➔ Ikastaroan parte hartzera gonbidatzeko gutunean, aitek eta amek parte hartzeak duen garrantzia azaldu.
- ➔ Ikastaroan parte hartzen duten aiten eta amen kopuruak parekidea izan behar du.
- ➔ Ikastaroa emateko ordutegiak egokia izan behar du aitek eta amek parte hartuko dutela bermatzeko.
- ➔ Ikastaroa emango duen pertsonak genero-berdintasunari dagozkion ezagupenak baditu.

Ikastaroaren edukiak:

- ➔ Zereginen erantzunkidetasunaren eta gizonak etxekoan zaintzan inplikatzearen garrantzia azaltzea.
- ➔ Pertsona bakoitzak modu batera sentitzen eta pentsatzen duela kontuan izan, eta edukiak ezaugarri horietara egokitzen ahalegindu.
- ➔ Familia motak kontuan hartu: ama bakarrik dutenak, heterosexualak, homosexualak...
- ➔ Aiten eta seme-alaben arteko harremana sustatzeko gakoak.
- ➔ Aitek eta amek bizi duten egoera fisiko eta emozionala desberdina dela kontuan hartzea.
- ➔ Gurasoei erlaxatzeko jarraibideak eman, sexu bakoitzaren berezko premien arabera (esaterako, erditu ostean suspertzeko).

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Ikastarora gonbidatzeko gutunak aiten parte-hartzea sustatzen du.
- ➔ Ikastaroan parte hartu duten aiten kopurua handitu egin da.
- ➔ Zaintzarako erantzunkidetasuna landu da.
- ➔ Ikastaroa emango duen pertsonak genero-berdintasunari dagozkion ezagupenak baditu.
- ➔ Ikastaroaren edukiak gurasoen beharrian eta interesetara egokitu dira.

➔ Herritarren parte-hartzea eta boluntarioen sustapena

Genero-ikuspegia herritarren parte-hartzean

Emakumeak gizartean parte hartzen hasteak oso erritmo eta modu desorekatua darama. Arlo horretatik egiten den lanean genero-ikuspegia txertatzeak emakumeek hainbat espaziotan aktiboki parte hartzea sustatzea dakar, eta horrela, haien iritziak eta emakume diren aldetik dituzten beharrianak kontuan hartuko dira.

Programa / jarduera>

Zu zara giltza 2011 programaren barruan dagoen Zahartze aktiboa proiektua.

Zer egin genero-ikuspegia txertatzeko?

Ezagupena sortzeko. Erretiratu egingo diren pertsonen argazkia

- ➔ Erretiroa hartzeak emakumeengan eta gizonengan, haien bikotekideengan eta familien nola eragiten duten jakiteko eztabaida-taldeak antolatuz informazioa jaso.
- ➔ Hitzaldiak emango dituzten pertsonak genero-ikuspegia txertatuko dutela kontrolatu.

Hedapena

- ➔ Erretiroak emakumeei, gizonei eta euren familiei/bikotekideei nola eragiten dien ikusarazi jarduera-programan jasota dagoen medioetan, hau da: herritarren aitopenean, foiletan, karteletan, prentsa-aurrekoan, webgunean, udal-aldizkarirako artikulua batean.

Herritarren parte-hartzea

- ➔ Programan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatu.

Genero-ikuspegiaren txertaketa ebaluatzeko adierazleak

- ➔ Eztabaida-taldeetan parte hartu duten gizonen eta emakumeen kopurua erretiratuta dauden pertsonen kopuruaren proportzionala da.
- ➔ Hitzaldietan, tailerretan eta abarren parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua orekatua da.
- ➔ Sexuaren araberako erretiroari buruzko aspektu zehatzak jaso dira proiektuaren hedapenerako.
- ➔ Erretiroak familiengan nola eragiten duen jaso da proiektuaren hedapenerako.
- ➔ Proiektuan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatzeko ekintzak egin dira.

estekak eta erreferentziak

Berdintasun egiturak

- ➔ **EMAKUNDE – EMAKUMAREN EUSKAL ERAKUNDEA**
<http://www.emakunde.euskadi.net/u72-home/eu/>
- ➔ **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kooperazio eta Berdintasun Saila.**
<http://www.gizaeskubideak.net/que-hacemos/igualdad.php?idioma=eu>
- ➔ **EUDEL-Berdinsarea. Berdintasunaren alde eta indarkeriaren kontrako euskal udalen sarea.**
<http://www.berdinsarea.net/>
- ➔ **Ordiziako Udaleko Berdintasun Saila**
<http://www.ordiziakoudala.com/ordiziakoudala/dm/berdintasuna.asp?nombre=5726&nodo=8hoja=0&sesion=14>
- ➔ **BERDINTASUN, GIZARTE POLITIKA ETA OSASUN MINISTERIOA**
http://www.migualdad.es/ss/Satellite?pagename=MinisterioIgualdad/Page/MIGU_home

Tresnak

- ➔ **EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. plana. IX. legealdirako jarraibideak.**
http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/u72_iv_plan/eu_emakunde/adjuntos/V_Plan_eu.pdf
- ➔ **Ordiziako emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana 2009-2012.**
<http://www.ordiziakoudala.com/ordiziakoudala/de/plan-orokorra.asp?cod=5729&nombre=5729&nodo=8orden=True&sesion=14>
- ➔ **Ordiziako Udaleko hizkeraren eta irudien erabilerarako gida.**
<http://www.ordiziakoudala.com/ordiziakoudala/de/tresnak.asp?cod=5734&nombre=5734&nodo=8orden=True&sesion=14>
- ➔ **Genero-mainstreamingari dagokionez, Herri Administrazioetako jardun egokiak.**
http://www.inmujer.migualdad.es/mujer/mujeres/igualdad/Mainstream_Adm.pdf